El Ayuntamiento de Mungia está fuertemente comprometido junto con el Consorcio Mungialde de Servicios Sociales en apoyar a las personas que por diversas circunstancias pueden llegar a encontrarse en una situación social crítica. Cada año, el Gobierno vasco destina una partida llamada Ayudas de Emergencia Social (AES) que en

nuestro caso se gestiona a través del Consorcio y que abarca seis municipios, entre ellos Mungia.

Las AES son ayudas puntuales que se conceden para cubrir gastos imprescindibles en momentos de necesidad. Pueden concederse para pagar un alquiler o los gastos primarios como agua y luz, entre otros, y no son compatibles con la percepción de otro tipo de ayudas sociales como la RGI (Renta de garantía de Ingresos) o la PCV (Prestación Complementaria de Vivienda).

A pesar del esfuerzo que desde el Gobierno vasco se lleva haciendo año tras año, el azote de la crisis ha hecho que las necesidades vayan en aumento cada año y es por eso que Ayuntamientos, asociaciones y distintas iniciativas han tenido que ponerse en marcha para garantizar la ayuda más básica. Desde el GV

se fijan unas cantidades anuales máximas a conceder por lo que desde principios de 2014 nos hemos visto en la obligación de limitar nuestras ayudas a las necesidades de vivienda, reduciendo en un 20% las cantidades concedidas.

Así, el pasado año 2013 la asignación de Gobierno vasco fue de 181.950 €, y a ello se le unió la campaña Dona un céntimo del hipermercado Simple del que se recibieron 1.960 €. De cualquier manera, hubo que aprobar una modificación presupuestaria por créditos adicionales cuya fuente de financiación fue el remanente líquido de tesorería (RLT) por 41.161€.

Este año 2014 la asignación de Gobierno vasco ha sido de 183.226€, agotada ya. El 9 de septiembre se aprobó una modificación por créditos adicionales cuya fuente de financiación fue nuevamente el RLT por 50.000 €.

Persona dependenteen jagoleentzako ibilbideak

Gizarte Zerbitzuetako Mungialde Partzuergoaren eskutik, eta Jagoten programaren barnean, oinezko ibilbideak antolatu dabez udalean zehar eta inguruetan mendeko personen jagoleentzako. Jarduera honek jagoleen ongizate físiko eta psikologikoa dabe helburu. Ibilbideok ariketa fisikoan espezializautako profesionales laguntzaz egiten ari dira, eta parte hartzeko jagoleok anbulategitik aginduta doaz ala Partzuergoak bidalita.

Saioak astean behin egiten dira, bakotxa laurogeita hamar minutuko: beroketa, txangoa eta hoztea, hamar minuto luzaketak egiteko eta beste hogei arnasketa eta erlajazino ariketak egiteko. Modu honetan, persona honeei nasaitzeko astia emon nahi jake,

jagoleen artean esperientziak partekatzeko espazio bat emonda, baldintza fisikoak hobetuta, besteak beste.

Esan bezala, Partzuergoaren bitartez zein Mungiako osasun zentrotik kudeatuko da jarduera hau. Azken kasu horretan,

jagoleak erreza sinboliko bat jasoko leuke, jarduera honetan parte hartzeko aginduarekin. Horrela, persona honeek hitzordua egin ahal izango dabe monitorearekin jardueraren inguruan informatzeko, ordutegiak, alkargunea, etabar ezagutzeko.

OBJETIVOS DE LOS RECORRIDOS PARA PERSONAS CUIDADORAS DE DEPENDIENTES

- Ofrecerles un tiempo de respiro
- Mejorar su condición física
- Crear un espacio de intercambio de experiencias

DESARROLLO DE LA ACTIVIDAD

- Del 6 de octubre al 21 de diciembre
- Incorporación continua: a través del Consorcio o el ambulatorio
- El/la paciente podrá hablar con la o el monitor para informarse así como para motivarse
- Sesiones de 90 minutos: calentamiento, senderismo, enfriamiento y relajación.

Udalak erizpide sozialak ezarriko ditu kontratazino publikoetarako



Mungia Udalak erizpide sozialak izango ditu kontuan hemendik aurrera egingo diran kontratazino publikoetan. Horretara, Udalbatzan ahobatez onartutako testuan, eraginkortasun ekonomikoa, konpromiso etikoa, soziala, linguistikoa, aukera bardintasuna eta ingurumenarekikoarekin bildu gurai zan dira.

- **Lan-klausulak:** kontratuak irauten dauen artean enpresak bete beharrekoak:

- Azpikontratatutako langileak erregulatu enpresa ondoren gotza ematen denetan edo/ta sektoreko hitzarmenak horrela agintzen duenetan.
- Azpikontratazioa mugatu, enpresari barriak aurrekoaren

Ianeko eta Gizarte Segurantzako eskubide eta betebehar bardinak bete beharko ditualarik.

- Langile barriak Mungialdeko Behargintzak urtero lehentasunezko arretarako izendatzen dituan kolektiboen artean aukeratu beharra (taldeok daben langabezi tasaren arabera). Beti bere Mungialdeko Behargintzaren lan-bitartekotza zerbitzuen bidez ala zuzenean Lanbideren bitartez.

- **Gizarte ekintza:** kontratu batzuk gizarte ekintzarekin lotutako enpresei egokitutu, esate baterako, enplegu zentro bereziak, gizarteratze enpresak edota irabazi asmorik bako erakundeak.

Klausula sozialak: Danon konpromisoa

Alkarlanetik jaiotako erizpideak:

- Eraginkortasun ekonomikoa: enplegua sortuz eta jarduera ekonomikoa dinamizatzuz
- Konpromiso etikoa: bardintasuna sustatzuz
- Konpromiso soziala: behar handian diranak lagunduz
- Konpromiso linguistikoa: geure hizkuntza jagon eta sustatzuz
- Ingurumenarekiko konpromisoa: geure ingurua babesteko neurriak ezarriz



MUNGIA

GIZARTE EKINTZA | ACCIÓN SOCIAL ■■■
Erizpide sozialak

Mungin
geure
ikurrek



Desgaitasunen bat daukaten personei dagokienez, Udalak 50 langile baino gehiagoko enpresei exijituko deutse gitxienez bere langileen %2 %33 edo gehiagoko desgaitasundunak izatea.

- Emakume eta gizonen arteko bardintasunerako klausulak: enplegurako sarbidea, sailkapena, promozioa, iraunkortasuna, trebakuntza profesionala, ordainsariak... Egokitutako enpresak bestalde lengoaia ez-sexista erabili beharko dau aurkezten dauen dokumentazinoan, rolen bardintasuna eta aniztasuna indartzen daben irudia sustatu, eta 250 langiletik gorakoek Bardintasun Plana dabela ziurtatu beharko dabe.

- Hizkuntza erizpideak: Euskararen erabilera sustatu eta jagon egingo da, bi egoera posible desbardinduta: eskainitako zerbitzuan hiritarrekin hartuemon zuzena dagoanean, hiritarrak euskeraz zein

gaztelaniaz artatzeko betebeharra dauka, euskerari lehentasuna emonez erabilteko ordenari, tipografiari etabar dagokionez. Gainera komunikazio, dokumentazio, ikerketa eta karteleria guztia euskeraz eta gaztelaniaz aurkeztu beharko dabe; adjudikatutako prestazioa lan publikoa dan kasuetan, enpresak seinaleztapena, adierazle eta ohar publikoak bi hizkuntza ofizialetan aurkezteko beharra izango dau.

- Ingurumenarekin lotutako erizpideak: inprimatutako dokumentazio guztia paper birziklatuan eta alde bietatik egin beharko dabe; ingurumenaren babeserako eta osasun publikorako erizpideak kontuan izan beharko dabez zerbitzuak eskaintzeko erabiliko dabezan produktuetan eta horrek ezarri egingo dira ingurumenean ekarri ahal dabezan kalteak kontuan izanda, baita legedia beteten dala segurtatzen daben ziurtagiriak aurkeztea eta zerbitzua

ingurumen-jarduera egokiak aplikatzea. Enpresek hondakinen murriztapen plan bat edo Ingurumen plan bat izatea bere baloratuko da.

Betebeharrok ez betetzea arau-hauste oso larria izango da eta kontratua desegitea ekarri leike.



El Ayuntamiento implantará cláusulas sociales en la contratación pública

El Ayuntamiento va a establecer diversos criterios sociales a valorar en las contrataciones públicas que promueva en el futuro. La medida, aprobada en Pleno por unanimidad, pretende aunar la eficiencia económica con el compromiso ético, social, lingüístico, de igualdad de oportunidades y medioambiental en nuestro municipio.

- Cláusulas laborales:

condiciones mínimas que habrán de respetar durante toda la duración del contrato.

- Regular la subcontratación de aquellos trabajadores y trabajadoras que así esté contemplado por existir sucesión de empresa y/o porque así lo recoja su Convenio Sectorial.
- Limitar la subcontratación, en la que la nueva empresa quedará subrogada en los mismos derechos y obligaciones laborales y de Seguridad Social de la anterior.
- Las nuevas incorporaciones de personal habrán de realizarse entre aquellos colectivos de personas desempleadas que Mungialdeko Beharginaz designe anualmente como de atención prioritaria (en función de las tasas de desempleo que afecten a los mismos), debiendo utilizar además los servicios de intermediación laboral de Mungialdeko Beharginaz (Centro colaborador de Lanbide) o directamente de Lanbide para efectuar dichas contrataciones.

- Reserva de contratos a entidades de carácter social,

como Centros Especiales de Empleo, empresas de inserción o entidades sin ánimo de lucro. En cuanto a la inserción laboral de las personas con discapacidad, el Ayuntamiento exigirá a las empresas licitadoras de más de 50 trabajadores, que al menos el 2% de las mismas sean personas con un porcentaje de discapacidad igual o superior al 33%.

- Cláusulas para la igualdad de trato entre mujeres y hombres en cuestiones fundamentales como acceso al empleo, clasificación, promoción, permanencia y formación profesional, retribuciones salariales, etc. Se establece que la empresa adjudicataria deberá utilizar un lenguaje no sexista en la documentación que aporte, deberá fomentar una imagen con valores de igualdad y pluralidad de roles, y en caso de contar con más de 250 personas en plantilla deberá acreditar que cuenta con un Plan de Igualdad.

- Cláusulas lingüísticas en las que el uso del euskera se protege e impulsa distinguiendo dos situaciones: cuando la prestación del servicio a contratar implique una relación directa con la ciudadanía, la empresa deberá prestarlo respetando en todo caso el derecho de la ciudadanía a ser atendida en euskera y castellano, dando prioridad a la primera en cuanto a orden de utilización, tipografía, etc. Además deberán presentar todas las comunicaciones, documentación, estudios y cartelería en euskera y castellano; Cuando la prestación de la adjudicación sea una obra pública, la empresa estará obligada a que las señales,

indicadores y notas públicas se presenten en las dos lenguas oficiales.

- Cláusulas medioambientales como la impresión de la documentación en papel reciclado y a dos caras, el tener en cuenta criterios ambientales respetuosos con el medio ambiente y la salud pública en los productos a utilizar en la prestación del servicio que serán especificados en función de los impactos ambientales negativos que se pudieran apreciar en cuanto al suministro, obra o servicio a contratar, o la presentación de certificaciones que avalen el cumplimiento de la legislación y la ejecución del servicio mediante la aplicación de buenas prácticas ambientales. Se valorará asimismo el que las empresas licitadoras dispongan de Plan de Reducción de residuos y/o Plan Ambiental implantados.

El incumplimiento de estas obligaciones constituirá una infracción muy grave y podrá dar lugar a la rescisión del contrato.

Un compromiso de todas las personas

Criterios nacidos de consenso:

- Eficiencia económica: creando empleo y dinamizando la actividad económica
- Compromiso ético: impulsando la igualdad
- Compromiso social: apoyando a los más necesitados
- Compromiso lingüístico: protegiendo y reforzando la presencia del euskera
- Compromiso con el medio ambiente: exigiendo medidas para la conservación y protección de nuestro entorno



MUNGIA

GIZARTE EKINTZA | BANDOA ■■■

Mungiak indarkeriari ez



Mungin
geure
ikurrek

Emakumeek jasaten daben indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna

Zemendiak 25

Mungiako Alkate-udalburuak, udal ordezkari politiko guztien adostasunagaz, honakoa adierazoten dau:

1. Aurtengo martiaren 17an gure herriko auzokide bat, Andina Pereira de Brito, indarkeria matxistaren ondorioz hil eben. Udalak, holango egoeretan prebentzio eta salaketarako eragile aktiboa bihurtu dan neurrian, hilketa honen aurrean gure gaitzespena eta kondenarik gogorrena erakusteaz ganera, bere senitartekoei eta lagunei gure besarkadarik beroena emon eta lagunza erakutsi gura deutsegu. Eta Andinaren senitarteko eta lagunei ezeze, indarkeria jasanezin eta bidebako hori sufridu daben eta sufritzen daben beste emakume guztiei bere bai. Holango egoeren aurrean herritarrei eta erakundeei "zero tolerantzia" izan daiela eskatu behar deutsegu, gizartearen arlo guztien arteko batasunaren bidez baino ez dogulako lortuko arazo larri honi aurre egitea.
2. Gure udalak bat egiten dau "Bardintasunaren Aldeko eta Andrazkoek jasaten daben Indarkeriaren Kontrako Euskadiko Udalen Sareak", hau da, BERDINSAREAk egindako Adierazpen Institucionalagaz. Aurtengo adierazpen horretan zera azpimarratu gura dogu, agresinoak eta portaera sexistak andrazkoen integridadearen, askatasunaren eta gaitasunaren kontrako erasoak dirala. Ildo horretan, Bardintasun Politikak garatzeko behar diran giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak indartzeko konpromisoa mantendu eta egonkortu egiten dogu.
3. Neska eta mutil gazteakaz prebentzino-lanak egitearen aldeko apustu sendoa egin dogu. Hori dala-eta, ikastetxeetan tailerrak egiten jarraitzen dogu eta, aldi berean, "Mungian Beldur Barik!!!" lehiaketa antolatzen. Ekintza horreek erakusten deuskue, batetik, gazteek konpromiso sendoa daukiela andrazkoek jasaten daben indarkeriaren kontra egiteko; eta bestetik, euren arteko hartu-emonak askatasunean, errespetuan, bardintasunean, anitzasunean eta sexismorik ezean oinarritu gura dabezala.
4. Emakumeen "ahalduntzea" bultzatzen daben gune komunak sortu edota indartzeko asmotan, behar beste baliabide jarri eta sare-lana sustatuta, Mungiako andra guztiak gonbidatzen doguz tratu txarrak jasaten dabezan emakumeei laguntzeko egingo dan Gizarte Laguntzarako Eragileen Sarea izeneko proiektua sortzen parte hartu daien. Proiektu horretan parte hartu gura dabenei prestakuntza berezia emongo jake holango kasuak igartzeko eta andrazkoi urtenbideak topatzen laguntzeko.
5. Udalak gonbidatu egiten ditu herritar guztiak Emakumeek Jasaten daben Indarkeriaren Kontrako Eguna dala-eta antolatuko diran ekitaldietan parte hartu daien. Eta, batez bere, dei egiten deutsegu herritarrei zemendiaren 25ean (martitzena), 19:00etan, Udaletxe ondoan egingo dan konzentrazinoan parte hartzeko, izan bere, konzentrazino horretan maitasunez gogoratuko dogu oraintsura arte gure auzokide izan dan Andina Pereira de Brito.

Mungian, 2014ko zemendian

ALKATEA

Izaskun Uriagereka Legarreta





25 de noviembre

Día internacional contra la violencia hacia las mujeres

La Alcaldesa-Presidenta del Ayuntamiento de Mungia, de conformidad con la totalidad de representantes políticos municipales declara:

1. El 17 de marzo de este año, nuestra vecina Andina Pereira de Brito fue asesinada a manos de la violencia machista. Con el objetivo de ser un agente activo en la prevención y denuncia de este tipo de manifestaciones, una vez más mostramos nuestra más enérgica condena y rechazo ante su violento e injusto asesinato, y en estas fechas, enviamos un cálido abrazo y expresamos nuestra solidaridad a la familia y amistades de Andina, así como a todas aquellas otras mujeres que, al igual que ella, han sufrido y sufren estas injustas e intolerables situaciones de violencia, ante las que no podemos sino demostrar y exigir "tolerancia cero" a la ciudadanía y a las instituciones, con el convencimiento de que sólo una unidad de acción entre los distintos estamentos sociales logrará erradicar esta lacra social.
2. Nuestra adhesión a la Declaración Institucional de BERDINSAREA "Red de Municipios Vascos por la Igualdad y contra la Violencia hacia las Mujeres", que incide en que las agresiones y los comportamientos sexistas son parte de un sistema que atenta contra la integridad, libertad y capacidad de las mujeres. De esta manera, mantenemos y reforzamos nuestro compromiso con las Políticas de Igualdad, mediante el fortalecimiento de recursos económicos y humanos.
3. Apostamos firmemente por trabajar desde la prevención con las chicas y chicos jóvenes. Por ello seguimos desarrollando, talleres en los centros escolares y, paralelamente organizando el concurso Mungian Beldur Barik!!! reflejando el compromiso juvenil para superar la violencia contra las mujeres y para construir unas relaciones libres, respetuosas, igualitarias, diversas y no sexistas.
4. Con el objetivo de crear y fortalecer con recursos los espacios comunes destinados a promover el empoderamiento de las mujeres y su articulación en red, invitamos a aquellas mujeres de Mungia que lo deseen, a participar en el proyecto de creación de una Red de Agentes de Apoyo Social que acompañen a mujeres en situación de maltrato. Las personas interesadas, recibirán formación para la detección de posibles casos y para orientar a las mujeres en la búsqueda de una salida a estas situaciones.
5. Animamos a toda la ciudadanía, a participar activamente en los diferentes actos que se llevarán a cabo en torno al Día Internacional contra la violencia hacia las mujeres. Y, especialmente hacemos un llamamiento a tomar parte en la concentración convocada a tal fin, el martes 25 de noviembre, a las 19:00 horas en las inmediaciones del Ayuntamiento, en el que recordaremos con especial cariño a nuestra vecina Andina Pereira de Brito.

Mungian, noviembre de 2014

ALKATEA

Izaskun Uriagereka Legarreta

GIAK
RIARI EZ





MUNGIA

El ayuntamiento, más cerca

Udala, mungiarrengandik paraje

Kudeaketa Sistema Integrala eguneratzen ari da Udala. Bide horretatik, trámite administrativo asko on line egin ahal izango dabez mungiarrek Hiritarren Karpeta aplikazioaren bitartez, eta gainera, sistema barriari esker, Udalean bertan egin beharreko trámitesak ere arinago egin ahal izango dabez. Datorren urte hasierarako prest egongo da sistema barri hau. Gainera, Udal parke informatikoa barria ezarriko da, eraginkortasuna, bizkortasuna eta eficiencia energetikoa hobetuko dituana.

El pasado mes de Julio fue adjudicado el proyecto para la actualización integral del sistema de gestión (ERP) implantado en el Ayuntamiento de Mungia a la empresa T-Systems, por un coste total de **349.472,67€** a desarrollar e implementar durante los próximos 3 años.

Entre otras mejoras y nuevas aplicaciones, el proyecto permitirá acercar la administración local a los y las mungiarros, que podrán realizar trámites con la administración de forma telemática a través de internet, mediante la Carpeta Ciudadana.

Con esta aplicación se podrá obtener, por ejemplo, un volante de empadronamiento desde casa sin necesidad de acudir presencialmente a instancias municipales. Además, el proyecto en su conjunto también supondrá una clara mejora de los tiempos de respuesta de cara a los ciudadanos y ciudadanas en sus trámites con la administración, ya que la herramienta actualizada presenta múltiples mejoras en cuanto a manejo y usabilidad diaria, así como para el control de expedientes por parte de los trabajadores municipales.

Desde el año 2004, el Ayuntamiento dispone del ERP TAO 1.0 desarrollado por T-Systems, y que aglutina los módulos de gestión informática de áreas diversas como intervención, gestión tributaria, registro, urbanismo, etc. El ERP se compone de módulos diferenciados por áreas que conforman el Ayuntamiento, pero enlazados internamente entre sí. De acuerdo a esta arquitectura, se prevé una actualización por módulos y áreas de forma paulatina hasta reconvertir el sistema completo en TAO 2.0. Incluso se van a instalar nuevos módulos, como el de Padrón o la Factura Electrónica, necesaria por ley a día de hoy en las entidades locales, y se van a reducir y actualizar los tipos de expedientes relacionados con urbanismo acordes a la Ley vigente mediante una auditoría incluida en el proyecto, consiguiendo mayor agilidad en la interlocución de esta área con los ciudadanos y ciudadanas.

Los trabajos de recopilación y migración de datos ya han dado comienzo en el mes de Octubre, y el primer módulo a instalar será precisamente ePOB (Padrón), dado que para comienzos del año 2015 se pondrá en servicio la Carpeta Ciudadana a través de la web municipal.

RENOVACIÓN DEL PARQUE INFORMATICO MUNICIPAL

El pasado mes de Julio fue adjudicado el proyecto de renovación del parque informático municipal a la empresa Consultec por un importe total de **61.716,05€**.

La antigüedad de los equipos informáticos del Ayuntamiento de Mungia y la propia actualización del sistema operativo instalado en los mismos, hacía necesaria una renovación de todo el parque



instalado en dependencias municipales. Así, los trabajadores municipales dispondrán de un nuevo equipo de última generación con las prestaciones más avanzadas "All in One", nuevas pantallas TFT, periféricos wireless, etc. En total 75 nuevas máquinas que el Departamento de Informática ya ha comenzado a sustituir, y que contribuirá claramente a una mejora en el trabajo diario de los propios trabajadores, y de los tiempos de respuesta y agilidad de los mismos de cara a los ciudadanos y ciudadanas en los diferentes puntos municipales de atención al público. Se prevé que para finales de año todo el parque esté convenientemente renovado.

El sistema operativo implantado en la red corporativa pasará a ser Windows 7 en euskera o castellano (a elección de cada trabajador o trabajadora), y el paquete ofimático será sustituido por uno de software libre. Todas las personas trabajadoras municipales recibirán además un curso de formación sobre estas dos herramientas software previamente a la sustitución del equipo.

Los equipos además darán cumplimiento de los ratios de eficiencia energética mediante la tecnología "Energy Star", punto que se recoge en el reciente Pacto de Alcaldes y Alcaldesas al que se encuentra suscrito el Ayuntamiento de Mungia.

Izenaduba Basoa, interpretazio zentrork bisitatuena



Izenaduba, alternativa cultural de calidad

El bosque mágico junto con la casa del Olentzero se ha convertido en un símbolo de la cultura vasca y del ocio educativo. Desde que abriera sus puertas en 2007 ha recibido más de 200.000 visitas y año a año se esfuerza junto con la ayuda del Ayuntamiento de Mungia por seguir ofreciendo un servicio de calidad, ofreciendo una experiencia lúdico-didáctica que aúna la mitología, tradiciones y magia con las últimas herramientas tecnológicas.

Olentzeroren etxea eta Izenaduba basoa euskal kulturaren erreferente bilakatu dira azken urteotan. Mungiako Udalak apustu handia egin dau interpretazio zentroa kalitatezko aisialdirako alternatiba izan daiten. Holan, 2007ko abenduan atea ireki zituenetik egun arte, 200.000 visitari baino gehiago izan ditu Izenadubak, horretatik 40.000 inguru ikasleak izan direlarik.

Izan be, Izenaduban umeen gaitasun eta ezaguerak garatzeko hamaika jarduera eta aukera eskaintzen dabe: tradizioak, ohiturak, euskal kultura eta mitologia teknologia berriekin uztartuko dituen gune barria prestatzen ari dira, hamabi informatika-ekipo, ikupen-pantailak

eta 43 hazbeteko bideo pantailaz osatuko dana. Horrela, jolas ludiko eta didaktikoetan, euskal Curriculumarekin lotutako edukiak landuko dabez eta hainbat gaitasun trebatu; esate baterako, hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna, matematikarako gaitasuna, teknologia dítaletan trebakuntza, etabar.

Eta ez hori bakarrik, Izenaduban barrikuntza ugari egin dira, bide berriak sortuz, sorginen baratzean gero landare sendagarri bilakatuko diren landareen haziak landatuz edo bizikide barriak hartuz. Bide horretatik, Mungian Napo astoaren etxea prest dabe bere etorrerarako. Napok, Olentzerogaz batera opariak banatzen ditu gabonatan, eta orain baso magikora bisita egiten daben umeek berori ezagutzeko aukera izango dabe.

Horrekin batera, basoan egoan baseliza barriztu beharra ikusita, Udal berori berreraikitzen ari da eta hil honen akaburako prest egongo da, bertan erakusketa eta programa didaktiko ezberdiniek bat datozen tailerrak, ipuin kontalariak, magia ikuskizunak edo zinema-saioak antolatuko dabezalarik.

Horrela, kurso barriari ongietorria emoteko aukera paregabea eskainiko dau Izenadubak aurten bere, eta sekula baino eskaintza osoagoenarekin: Landetxo baserriaren xarma, Tartaloren laberintoaren misterioak, eta finean, bost zentzumenak gozatzeko esperientzia bizitzeko aukerea. Sorginak ukendu eta edabe magikoak sortzen ikusi, baratzean landareak usaindu, ukitu eta dastatu, Mariren koba miragarrian murgildu eta Herensugea, Basajaun eta Akerra

lagun jentilen istorioak ikasi; 3D simulagailua bideo berriekin, joko interaktiboak, eta hamaika bazter ezagutzeko oraindik.

Izenadubako arduradunek sarrerak aldez aurretik erostea gomendatzen dabe, sarri bisita egunak betebeteta egoten diralako. Eta datuak hor daude, Bizkaiko museo eta interpretazio zentroetan seigarren baita Izenaduba Basoa bisitari kopuruan. Zentroa 2007an zabaldu zanetik, Olentzeroren etxe izatetik Mungiako ikur hau euskal lurrardeetako lehen parke mitologiko izatera pasatu da eta zalantza barik, eskualde eta Bizkaia osoan ezinbestean bisitatu eta gomendatu beharreko kultur ekimena.

Aurten, publikoaren eskaerari erantzuteko asmoz, bisita saio gehiago antolatuko dira eta Mungiako Udalaren laguntzaz, bisita orduak zabaldu egingo dituzte, guztira 278 saio eskainita. Horretarako, monitore gehiago kontratatuko dira eta arratsaldez ere bisitak antolatuko dira. Udalak ere inbertsio zenbait egin ditu Bizkaiko interpretazio zentrork bisitatuenaren kalitatea bermatzeko eta jarduerak antolatzeko.

Horretaz gain, gabonetan, Izenadubako pertsonaiak eskoletara bisitan joango dira, haur hezkuntza eta lehen hezkuntzako lehen eta bigarren mailako ikasleengana. Egunotan ikasleen artean gutun azalak banatuko dituzte gero abenduaren 13tik aurrera Mari Domingiri emoteko. Esan beharra dago baita be abenduaren 26an nahi dutenetzako ipuin kontalariak izango direla Izenaduba Basoan, goizeko hamabietatik aurrera.

Euskal Erromeriak dantzan jarri ginduzan Lore Jokoetan



Aurtengo Lore Jokoek eguneko gaia Erromeria izan zan, urriaren 26an ospatu gendun jaiegunean. Goizean zehar, zer ikusi ugari egon zan Aita Elorriagan, Foruen eta Matxin plazan bueltan herritarrek egin ebezan antzezlanakaz.

Horretara, mungiarrek prestatutako "Domeketako erromeriac" lana antzeztu eben, eta aspaldiko euskal erromerietan izaten ziren ohiturak, musikariak, dantzak eta jendearen arteko hartu-emonak ikasteko aukera izan gendun mungiarrok. Bitartean, ume, gazte zein nagusi, egunerako propio jantzita, dantzan, kantetan ala talo-janean ibili ziren, edo erromeriko tabernan berbaz, beti bere Foruen plazako hizlariei begia kendu barik.

Horren ostean "Gure musikari handiak" ikuskizuna (Oreka TX eta Lekeitioko Kale-antzeki Jaialdia) eta euskal musika herrikoaren bost izen handi ordezkatzen zituzten txotxongilo erraldoiak atara ziren: Maurizia, Leon eta Fasio batetik, eta Pello Zuaznabar eta Ramon Goikoetxea txalapartariak bestetik. Maurizia entzunez mungiarak, umeak asko, dantzan eta saltoan

jarri ziren, musikari erraldoien antzera, eta hareen atzetik ibili ziren kalejiran.

Ikuskizun hori, urriaren 23ko mahai-ingurua, urri osoan zehar Torrebillelan egon zan erakusketa eta 26rako prestatu ziran ganerako ekintza guztiak bezala, euskal erromeria omentzeko erabili ziran. Izan bere, erromeria euskal kulturaren oinarrizko elementua da, eta erromeria bera ez eze Mungiako eta inguruko erromeriako musikariekin izan daben balioa eta garrantzia ezagutarazoteko bere erabili gura izan da.

Bestalde, Mungiako Lore Jokoetan urteroko eta ezinbesteko bihurtu diran emonaldiak ere egon ziran: plazan antxinako ofizio batzuen antzezpenak; eguerdate-eguerdatean, bertso-saioa eta beste hainbat alkartek eskaini euskuezan ikuskizunak. Eguerdi-arratsaldean, herri bazkaria, bazkaloste ederra, umeentzako euskal jolas tradizionalak, eta oraindik bere dantzan egiteko gosez lotu ziranentzat, arratsaldeko erromeria Olalden.

Lore Jokoak versó sobre la romería vasca

El 26 de octubre tuvo lugar la jornada festiva en torno a Lore Jokoak que este año tuvo como tema central la romería. La jornada incluyó un sinfín de actividades, entre ellas, una representación teatral popular y el espectáculo 'Gure musikari handiak'. Además, entre otras iniciativas, tuvo lugar una mesa redonda organizada en colaboración con Eusko Ikaskuntza y una exposición en Torrebillela.

Bestalde, esan bezala, urriaren 23an "Domeketako erromerie" izeneko mahai-ingurua eskaini zan Torrebillelako aretoan Mungia Udalak Eusko Ikaskuntzagaz batera antolatuta, eta urriaren 25ean, Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren 3. kanporaketa entzun ahal izan gendun Olalde Aretoan. Bai batak eta bai besteak lotura zuzena izan eben aurtengo Lore Jokoakaz, eta baita bere Torrebillela kultur etxearen urrian ikusgai egon zan erromerien ganeko erakusketagaz.



Gudarien inguruko erakusketa barria azaroan Mungian

Exposición sobre el frente de Zirardamendi-Elgoibar

- Lugar:** Torrebillela Kultur Etxea.
- Fecha:** Del 4 al 20 de noviembre.
- Temática:** El 25 de septiembre de 1926 murieron en este frente catorce gudaris vizcaínos del batallón Sabino Arana, entre ellos, Juan Agirre, natural de Mungia. Objetos personales, paneles informativos y vitrinas, entre otros, completan esta exposición.
- Organiza:** Fundación Sabino Arana en colaboración con diversas asociaciones, entidades y municipios.

Sabino Arana Fundazioak, Mungiako Udal eta beste Udalerrri eta beste kultur elkartetako erakunde batzuen laguntzarekin erakusketa antolatu dau, 1936ko irailean Zirardamendi-Elgoibar frontean hil ziren gudari eta miliziano bizkaitarren omenez. Datorren hilean Mungiarrok Torrebillela kultur Etxeko erakusketa gelan ikusteko aukera izango dogu, azaroaren 4tik 20ra bitartean.

Aranzadik 2012an hobi komunean aurkitutako objetu pertsonalekin batera, bitrinak, panel informatiboak, argazkiak, jantziak, borrokan erabilitako tresnak (kaskoak, eskuko lehergailuak, armak, mahai tresnak, platerak, jantzi era ezberdinak) izango dira ikusgai. Objektuok Mola generalaren Bizkaia kontrako tropa matxinatua geldiarazi zutenekoa eta Agirre Lehendakariaren Euzkadiko lehen Gobernua sortzea erreztu eben gudarien gerra pasarte hura gogoraziko dabe.

Euskadien askatasuna defendatzen, Arana Goiri bataloiko hamalau gudari bizkaitar hil ziren 36ko



irailaren 25ean Zirardamendi-Aiastia (San Migel)- Elgoibar frontean. Beraien artean, Mungian jaiotako Juan Agirre. Euskal gazte hauen erresistentziak geldiarazi eban matxinatutako gudarostearen aurrera joatea hilebete askotan, frontearen orekatzea lortuz. Honela, Madrilgo gorteetan urriak 1ean onartutako Autonomi estatutoak eraginkortasuna izatea lortu zan eta urriak 7an Jose Antonio Agirre Lehendakari izendatu eben, bere karguari zin egin ziolarik Gernikan urriak 7an. Lehen Euskal Gobernuak, gudaroste bat, errefuxiatuentzako (bereziki umeak) laguntza sare bat, unibertsitate bat, egunkari bat euskeraz eta hezkuntza sare bat martxan jartzea lortu zuen, besteak beste. Hori guztia 1936ko urria eta 1937ko ekainaren bitartean.

Hori bai, matxinatuek aurrera jotzea lortuko bazuten, Gobernu honen sorrera ezinezkoa izango zen ez eta gero lortutako lorpenak lortzea. Horregatik, ez da gezurra ez eta exageratua ere esatea Iñaki Goionaga erakusketa komisarioak dioen bezala, "Agirreren Gobernua eutsi zuen zutabeetariko bat

Zirarmendin, irailak 25ean Bilboko Patronatotik irten zuten eta heroikoki borrokatu eta hil ziren gazte haien izen ziren".

Hasiera batean, batailan zehar izandako liskar bat besterik ematen ez zuena, azkenean, Euzkadiarentzako oso esanguratsua bilakatu zen. Gatazkaren nondik norakoa aldatu zuen eta aldi berean, gure herriaren historia ere aldatu zuen.

Erakusketa hau Sabino Arana Fundazioak, Aranzadi Elkarte edo Sancho de Beurko bezalako beste kultur elkartetako erakundeekin antolatutako erakusketa, garai historiko honetan, Euskal lurretan izandako gerra zibilean, bere ondorioengatik liskar garrantzitsuenetariko batean, parte hartu zuten gudari eta milizianoen omenez egindako oroimen ekintzen programazio barruan kokatuta dago.

Halan da guztiz bere, gudari honeetik aparte, beste gudari asko borrokatu zuten garai honetan nazionalen contra. Euretariko bat oraindik bizirik dago: Pablo Uriarte Goirizelaia.

Pablo Uriarte Mungiako gudariak hemendik omenaldi saria jaso dau

Pablo Uriarte dogu bizi dan gudari mungiar bakarra eta pasa dan urriak 14an DEIA egunkariaren eskutik Hemendik Omenaldi Saria jaso eban Fruizen antolatu eben sariketa emonaldian. Mungiako Udalak be Pablo omendu gura izan eban bere lan, sakrifizio eta borroka eskertzeko, eta mungiar guztien izenean oroigarri bat eskaini eutson egun haretan.

Pablo Uriarte Mungian jaio zan 1915eko martxoaren 2an. 21 urte ebazala gerra zibila hasi zan, eta momentu horretatik eta hogeita hamar bat urte bete arte danerik bizi behar izan eban, momentu gogorrak sarri. Pablo Uriartek tingo eutsi eutseen bere sinismen eta usteei, eta bere borroka horretan inpernua erei kusi eban, Gernikan bombardaketaren ostean izan zanean.

Bilbo jausita, Santoñara ihes egin eben itsasontzi bat hartzeko asmoagaz, baina aurrez aurre Cervera guda-itsasontzia ipini eutsien eta ezin izan eben handik urten. Handik egun bira italiar batailoi bat sartu zan eta entregatu egin ziran. Orduan Laredora eroan ebezan, eta bertan euren lanagaz eta alanbradak erabilita, Konzentrazino eremu bat sortu eben. Italiarrak ez ziran hain gogorrak izan eurokaz, baina atzera espanyiarren menpe egon ziranean trenean sartu eta Zaragozara eroan ebezan eta han hasi ziran galdeketak eta jipoiak.

Horren ostean, Deustuko Unibertsidadera ekarri eben preso, eta handik Miranda de Ebrora bidali eben. Bertan, goizeko 7etan bandera mastilean ipini eta "Cara al Sol" abestu behar izaten eben. Halako baten Pablo eta bere lagun



bat ez ziren konturatu makildun zaintzailea atzean egoala eta berbetan hasi ziran. Hartu eben jipoia itzelezkoia izan zan.

Gerorago Leridara bidali eben Pablo, langileen beste talde batetara, Pirineoetan mendiko bideak egitera. Han oso momentu gogorrak pasatu ebazan. Pabloren lau lagunek iges egiten saiatu ziran Frantziara heltzeko asmoagaz. Handik egun batzutara harrapau egin ebezan eta fusilatuak izan ziran, Pablo eta bere taldeko kideen aurrean.

Gerra amaitzean, etxera bidali ebezan, baina handik lasterrera Pablo zigortu egin eben, 36. kintakoa izateagaitik fusilik hartu ez ebalako, eta konzentrazino eremu baten sartu.

Handik lasterrera zigorrak amaitzen joango ziran eta zigortuak askatzeko euren herrietara informeak eskatzen hasi

ziran. Baina Pabloren informea ez zan ona izan eta urteetan egon behar izan eban bertan.

29-30 urte zituala itzuli zan etxera. Handik aurrera emaztegaia (Josefina Markaida) ezagutu eta beragaz ezkondu egin zan eta alaba bi ekarri: Ana Mari eta Eguzkiñe. Lauaxeta Olerkaria izeneko kaleko egur zerrategia sortu eban eta bertan ibili zan gogor lanean jubilatu arte. Gaur egun San Jose Etxe-Alai egoitzan bizi da, eta 5 hilebete barru 100 urte egingo ditu.

Bere konpromisoagaitik, bere ausardiagaitik eta gure herriaren alde bere bizia emoteko prest egon izanagaitik, Pablo Uriartek Deia egunkariaren Hemendik Omenaldi Saria jasotzea merezi dau inolako zalantza barik. Eskerrik asko Pablo, zure esfortzu eta borroka eredu dira mungiarrontzako.

Zorionak eta eskerrik asko, Pablo!

Mungian ere euskeraz bizi gura dogu ←

Irailaren 27an hirurehunetik gora mungiari batu ziran herriko kaleetan "Euskaraz Bizi Nahi Dut" herri-martxan parte hartzeko. Eguerdiko hamabietan Euskal Pizkundearen Etorbidetik urten eta uriguneko kale nagusietatik pasatu ostean, barriro bere, hamabi eta erdiak inguruan, plazara bueltatu zan herri-martxa. Martxa lasaia eta ibilbide errazekoa izan zan, izan bere, helburua danok batera egitea zan (ume, gazte, heldu zein edadekoek), euskeraz bizitzea guztion aldarrikapena dalako.

Aldarrikapen hau jai-giro ederrean egin zan, eta batez bere, herriko ehundaka herritarren eta hainbat alkarteren lankidetzari esker. Goizean, abiatu aurretik, Taket Bertso Eskolako kide biren bertsoak entzuteko aukera izan eben parte-hartzaileek. Aldarrikapen bide horretatik ere, Txokolo Euskera alkartea Euskaraz bizi nahi dut ekimenaren inguruko materiala saltzen eta banatzen ibili zan (kamisetak, boltsak, erlojuak, karetak, pegatinak...). Gainera, herriko euskaltegi bien ganeko informazioa jasoteko edo, gura izan ezkero, aurten estrena dan

photocall-ean erretratuak aterateko aukera be eskaini eben. Aitatutekoada baita be herriko eskolek egin eben beharra, eskolako umeak eta gurasoak etortzeko animatuta.

Gero, ibilbidean musika eta umore ona izan ziran nagusi. Valentín Uriona Txirrindulari alkarteko kideak aurretik, herriko eskola guztiak umeak pankartari eusten, eta atzetik hirurehunetik gora parte-hartzaile. Plazara bueltau ostean, Euskeraren Aholku Batzarreko kide dan Jabi Etxegaraik euskeraren

erabilera aldeko manifestua irakurri eben.

Akabuko hamarkadetan euskeraren erabilera-esparruak asko zabaldu diran arren, oraindik bere hainbat falta jaku euskeraz bizi gura dogunok benetan bere horretarako aukerea izan daigun. Eta martxa honen bidez, batetik aldarrikapen hori herriko kaleetan zehar zabaltzea lortu zan, eta, bestetik, oraindik bere bide luzea egin behar dogula gogorarazi zan.

Mungia impulsa el uso del euskera

El pasado 27 de septiembre se celebró en Mungia la marcha popular "Euskeraz bizi nahi dut" en la que cientos de mungiarras tomaron parte junto con diversas agrupaciones del municipio. La jornada festiva incluyó deporte, música y reivindicación por parte de mungiarras de toda edad y condición.

Por otra parte, el próximo 3 de diciembre celebraremos el Día Internacional del Euskera con un evento oficial en Olalde Aretoa en el que se entregarán los premios Euskera Saria, Lauaxeta Olerki Saria y Hemen euskeraz ikurra, este último a los comercios por visibilizar e impulsar el euskera. Además, el día 4 de diciembre se presentarán en Torrebillela las unidades didácticas diseñadas en colaboración con el Instituto Labayru basadas en grabaciones etnográficas realizadas a personas mayores de nuestro entorno.

Bizkaiko bertsolari txapelketaren kanporaketa-saioan 'Abarkas' nagusi ←



Urriaren 25ean 2014ko Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren 3. kanporaketa-saioa entzuteko aukera izango gendun, non Eneko Abasolo 'Abarkas' nagusitu zan 377 puntuarekin. Iurretaoak finalaurrekoetarako txartela eskuratu eban dozenaka bertsozale bildu ebazan Olalde Aretoan. Beragaz batera Joseba Artza (372,5 punto), Gorka Lazcano (342), Jon Rementeria (337,5), Julen Ibarguengoitia (336,5) eta Peio Ormazabal (330,5) aritu ziren nor baino nor. 'Abarkas' Etxebarrian izango dan finalaurrekoan kantatuko dau zemendiaren 22an.



2014ko Euskeraren Nazioarteko Eguna



Irailaren 27an hirurehunetik gora mungiar batu ziran herriko kaleetan "Euskaraz Bizi Nahi Dut" herri-martxan parte hartzen. Eguerdiko hamabietan Euskal Pizkundearen Etorbidetik urten eta uriguneko kale nagusietatik pasatu ostean, barriro bere, hamabi eta erdiak inguruan, plazara bueltatu zan herri-martxa. Martxa lasaia eta ibilbide errazekoa izan zan, izan bere, helburua danok batera egitea zan (ume, gazte, heldu zein edadekoek), euskeraz bizitzea guztiaren aldarrikapena dalako.

Aldarrikapen hau jai-giro ederrean egin zan, eta batez bere, herriko ehundaka herritarren eta hainbat alkarteren lankidetzari esker. Goizean, abiatu aurretik, Taket Bertso Eskolako kide biren bertsoak entzuteko aukera izan eben parte-hartzaleek. Aldarrikapen bide horretatik ere, Txokolo Euskera alkartea Euskaraz bizi nahi dut ekimenaren inguruko materiala saltzen eta banatzten ibili zan (kamisetak, boltsak, erlojuak, karetak, pegatinak...). Gainera, herriko euskaltegi bien ganeko informazioa jasoteko edo,

gura izan ezkerro, aurten estrena dan photocall-ean erretratuak aterateko aukera be eskaini eben. Aitatuteko da baita be herriko eskolek egin eben beharra, eskolako umeak eta gurasoak etortzeko animatuta.

Gero, ibilbidean musika eta umore ona izan ziran nagusi. Valentín Uriona Txirrindulari alkarteko kideak aurretik, herriko eskola guztietako umeak pankartari eusten, eta atzetik hirurehunetik gora parte-hartziale. Plazara bueltau ostean, Euskeraren Aholku Batzarreko kide dan Jabi Etxegaraik euskeraren erabileraaren aldeko manifestua irakurri eban.

Akabuko hamarkadetan euskeraren erabilera-esparruak asko zabaldu diran arren, oraindik bere hainbat falta jaku euskeraz bizi gura dogunok benetan bere horretarako aukerea izan daigun. Eta martxa honen bidez, batetik aldarrikapen hori herriko kaleetan zehar zabaltzea lortu zan, eta, bestetik, oraindik bere bide luzea egin behar dogula gogorarazi zan.

Lauaxeta olerki lehiaketa

Aitatu bezala, Lauaxeta Olerki Saria banatuko da Euskeraren nazioarteko Egunaren ekitaldi ofizialean, Olalden. Lehiaketa hau olerkigileentzat erakusleho izateko asmotan jaio zan duela zazpi urte. Esteban Urkiaga "Lauaxeta" poetaren olerki baten titulua emoten jake parte-hartzaleei euren erara interpretatu eta poema bat egin daien, aurten "Maitale kutuna" olerkia hautatu dalarik.

Lehiaketa hau irekia da, bai forma eta bai gaiaren tratamenduaren aldetik. Izen bere, beronen helburua idazleei olerkigintzan euren burua janzten eta osatzen

laguntzea da, baita bide horretan jendearen eta irakurleen arreta lortzea bere. Orain arteko sei edizinoek argi erakutsi deuske

poesia-zale asko dagoala eta ezinbestekoak dirala holango erakusleihoa. Sariak 800 eta 500 eurokoak izango dira.



Mungialdeko berbakerea

Orrialde honen helburua gure ondarearen parte bat batu eta zabaltzea da, hain zuzen bere, Mungialdeko berbak. Gaur egun letra idatziaren gizartean bizi garanez, emoten dau idazten ez danak ez daukala izaterik; halanda bere, gure eskualdeko berbeta honetan badira hainbat eta hainbat hitz, normalean idazten ez doguzan arren, berbaz egunero-egunero erabilten doguzanak. Berba horreetariko batzuk, Mungiarrak aldizkarian batzea da gure asmoa.

Zure ekarpenak bialdu gura badeuskuzuz, idatzi helbide honetara: euskera@mungia.org



ZELAN IDATZI?

ZELAN ESATEN DOGU?

ESANGUREA

AFRUNTU(A)

AFRUNTUE

Jazarria, ekaitz-haizea.

"Etxearen alde hori afruntuan dago eta ez da egokia aterpea egiteko bertan".

BARRABAS(A)

BARRABASA

Demoninoa, bihurria.

"Horrek ume horrek barrabasak daukaz".

ESKANDALU(A)

ESKANDALUE

Asko, exajerazinoa.

"Zenbat lagun batu zarie? Eskandalua!"

TRIPAZORRI(AK)

TRIPASORRIEK

Gosea danean tripek egiten
daben zaratea eta kili-kilia.

ZENTEILA

SENTALLEA

Barrabana. "Zenteila lupoak!".

"Zenteila-hotsean joan zan= arin-arin, andaran".



MUNGIA

KIROLAK | DEPORTES

Skate pista

Mungin
geure
ikurrek

SKATE PISTAK 25. URTEURRENA OSPATU EBAN

Mungiako Skate Park Omenaldia ospatu zan pasa dan irailak 13an, datorren urtean pistaren 25.urteurrena beteko dala ta. Malen Skate Klubak, Mungiako Udalaren laguntzarekin antolatu eban egunean hainbat jarduaera izan ziran gozagarri, emozinoz betetako jai-eguna bizi gendualarik. Izan bere, datozen urteetan seguruenik beste zonalde baten kokatuko da pista hau, Legardako eskola-inguruan egiten ari dan urbanizazio proiektua dala eta.

Hori dana dala eta mungiar guztiok parte hartzeko moduko jarduerak antolatu ziran: skate-a, guzti horreen ardatz, Eddie Reategui pro-skater kaliforniarra ere bertan egon zalarik. 1990. urtean Mungiako pista zabaldu zanean bere bertan izan zan, eta oraingoan bere danok aho bete hortz utzi ginduzan.

Mungiako Amilotx Dantza Taldearen agurra, txalaparta, skateparkaren historiari buruzko dokumentala eta, ederto amaitzeko, XXL talde mitikoaren kontzertu itzela. Taldea, 15 urtez geldirik egon ostean barriro be bildu zan bere garaian izan ebazan hainbeste jarraitzaileekin batera egoteko. Mila bat pertsona, ume zein nagusik parte hartu eban sariz, sorpresaz eta emozinoz zein oriopeñ ederrez beteriko egunean.

**ARGITARATZAILEA:**

MUNGIKO UDALA: Elorduigoitia, 4 / 48100 Mungia <Bizkaia>
Tel. 94 674 12 12 / harrera@mungia.org / www.mungia.org

ALE KOPURUA: 7.000

LEGE GORDAILUA: BI-2224/2012

